Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

530

AGINDUA, 2010eko abenduaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Gernika-Lumoko (Bizkaia) «Juli Foruria» Musika Eskola Pribatuari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Gernika-Lumoko (Bizkaia) «Juli Foruria» Musika Eskola Pribatuak baimena eskatu du espezialitateak gehitzeko. Aztertu dugu horri dagokion eskabidea.

Euskal Autonomia Erkidegoan arautu gabeko musika-irakaskuntza espezifikoa ematen duten ikastegien –musika-eskolak– sorrera eta jarduna arautzen duen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren II. kapituluan ezartzen da irakasleei musika-eskoletan irakatsi ahal izateko eskatzen zaien titulazioa (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA).

Indarrean dauden legeak ikusi ondoren eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan harturik, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Gernika-Lumoko (Bizkaia) «Juli Foruria» Musika Eskola Pribatuari 2011-2012 ikasturtetik aurrera saxofoi eta gitarra elektrikoko espezialitateak irakasteko baimena ematen zaio. Eskolaren kode- zenbakia 48015840 da; helbidea, San Juan Ibarra plaza 2; eta titularra, berriz, Julia Foruria Laucirica.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira: 1.,2. eta 3. mailakoak.

Adarra:

– Kantua: korua.

– Instrumentu sinfonikoak: biolina, biola, biolontxeloa, txirula, klarinetea, fagota, tronpeta eta saxofoia.

– Instrumentu polifonikoak: pianoa, gitarra eta akordeoia.

– Bertakoak: txistua.

– Zenbait joera: gitarra elektrikoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

530

ORDEN de 15 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la ampliación de especialidades a la Escuela de Música Privada «Juli Foruria» de Gernika-Lumo (Bizkaia).

Examinada la solicitud presentada por la Escuela de Música Privada «Juli Foruria» de Gernika-Lumo (Bizkaia), de autorización para la ampliación de especialidades.

Considerando que el Decreto 289/1992, de 27 de octubre (BOPV de 4 de enero de 1993), por el que se rigen la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su Capítulo II, establece la titulación requerida al profesorado para ejercer la docencia en Escuelas de Música.

Vista la legislación vigente y considerando que se cumplen todos los requisitos exigidos reglamentariamente,

RESUELVO:

Artículo único.– Se autoriza a la Escuela de Música Privada «Juli Foruria» n.º de código: 48015840, sita en Plaza de San Juan de Ibarra, 2, del municipio de Gernika-Lumo (Bizkaia), y cuyo titular es Julia Foruria Laucirica, a impartir a partir del curso escolar 2011-2012 las especialidades de saxofón y guitarra eléctrica.

Se impartirán en este centro las siguientes enseñanzas: niveles 1,2 y 3.

Rama:

– Canto: coral.

– Instrumental sinfónica: violín, viola, violoncello, flauta, clarinete, fagot, trompeta y saxofón.

– Instrumental polifónica: piano, guitarra y acordeón.

– Autóctona: txistu.

– Tendencias diversas: guitarra eléctrica.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de

eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 15a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.